



***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIETATE PUBLIKOAK***

***2019KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU BATERATUAK  
IKUSKARITZA TXOSTENAREKIN BATERA***



***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIETATE PUBLIKOAK***

***2019KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU BATERATUEN  
IKUSKARITZA TXOSTENA***





## BASAURIKO UDALEKO 2019. URTEKO KONTU BATURATUEI BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA

---

BASAURIKO UDALEKO Kontu-hartzaileari:

### **Iritzia salbuespenekin**

Hartutako mandatuaren arabera, BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “UDALAREN LAGUNTZA KOMUNITARIOKO ZENTRO ETA AUTONOMIA PERTSONALERAKO EGOITZA” organismo autonomoen eta “BASAURI –ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” sozietate publikoen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2019ko abenduaren 31ko balantze bateratua, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion ondare-emaizta ekonomiko bateratuaren kontuak, ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxu bateratuaren egoera-orriak, aurrekontu bateratutako likidazioaren egoera-orriak eta memoria bateratuak osatzen dituzte.

Gure iritziz, *Salbuespenekin iritziaren oinarria atalean* deskribatutako gaiek aurreko ekitaldiko zifra-konparatiboetan duten eraginagatik eta atal horretan deskribatutako gaiek izan dezaketen eraginengatik eta gai hauen eraginengatik izan ezik, erantsitako urteko kontu bateratuek, arlo esanguratsu guztietan, 2019ko abenduaren 31n Erakundearen ondarearen eta finantza egoeraren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena eta aurrekontu kitapenarena ere, guzti hauek bateratuak, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (aurrekontu mugatua duten entitateen kasuan *Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezarritakoa* delarik. Bestaldetik, mendeko sozietate publikoek *azaroaren 16ko 1514/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren* arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte beraien urteko kontuak), eta bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate eta aurrekontu printzipio eta arauekin. Udaleko Kontu-hartzaileak, erantsitako memoriako bateratuko 3.d atalean isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta, formulatutako eta emandako urteko kontuen eta aurrekontu kitapenen bateratzea burutu du.

### **Iritzia salbuespenekin emateko oinarria**

Txosten honen datan, ondorengoengandik ezin izan dugu egindako baieztapen eskaeraren erantzuna jaso:

- a) CaixaBank eta Nafarroako Rural Kutxa, 2019ko abenduaren 31an Udalarekin izandako banku-eragiketei dagokionez; CaixaBank Egoitza Patronatuarekin; Kutxabank Kirol Patronatuarekin; eta Nafarroako Rural Kutxa Kultura Patronatuarekin.
- b) Udalaren hamar hartzekodun, 2019ko abenduaren 31ko zorraren osaeraren eta data horretan amaitutako ekitaldian hauekin izandako eragiketa - bolumenaren inguruan.



- c) Bizkaiko Foru Aldundia 2019an zehar Kultura Patronatuari beren aurrekontuaren kargura egindako abonuei dagokionez.
- d) Udalarekin urtean zehar harreman profesionalak mantendu dituzten bi abokatu, beste bi Egoitza Patronatuarekin eta bat Kirol Patronatuarekin, Euskaltegiarekin eta Kultur Patronaturekin, horiek izan ditzaketen erreklamazio, auzien edo auzien ondorioz sor daitezkeen betebeharrak edo erantzukizun subjektiboei buruz.
- e) Udalak 2019.ekitaldian diru-laguntzak emandako lau Entitate edota Elkarte, kitatutako eskubideen aitortpeni buruz, burututako kobraketei buruz eta 2019ko abenduaren 31n kobratzeko daudenei buruz.

Bestalde, 2018.ekitaldiko ondare-emaizta ekonomiko bateratuaren kontuko “Ibilgetu ez-finantzarioaren emaitza eta bestelako partidak” epigrafean, Udalak Bilbao Ria 2000, S.A.ri, honek Bidebieta-Pozokoetxe eremuko hirigintza kudeaketan burututako lan eta zerbitzuengatik ordaindutako 2.301.813 eurotako kalte-ordainak kontabilizatu zituen. Hala ere, gastu hau 2017.ekitaldiko urteko kontu bateratuetan kontabilizatu behar zenez, 2018ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko urteko kontu bateratuen ikuskaritza txosteneko iritzia salbuespenekin izan zen. Ondorioz, ekitaldi honetako urteko kontu bateratuen iritzia ere salbuespenekin da, egoera honek ekitaldi honetako eta aurrekoaren datuen konparaketan daukan eraginaren ondorioz.

Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2019ko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, diruzaintzako gerakin bateratuan eta 2019ko abenduaren 31ko balantze bateratuan:

Kontzeptua	2019 Ekitaldia							
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo ez korrontea	Aktibo korrontea	Pasibo	Ekitaldiaren emaitza	Jasotako diru-laguntzak emaitzetara jartzeko zain	Gainontzeko ondare garbia
<b>UDALA</b>								
Aitortu gabeko 4. hiru hilabeteari dagozkien ur-horniduraren, zabor-bilketaren eta estolderia-zerbitzuaren tasetatik datozen sarrerak	-	-	-	1.161.078	-	68.373	-	1.092.705 (*)
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren eta ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioak	161.360	57.691	-	161.360	-	57.691	-	103.669 (*)
Ekitaldi desegokian erregistratu diren (Hurrengo ekitaldian) udal zergetiko (420.934) y eta “enpresa hornidura	-	-	-	641.081	-	(365.642)	-	1.006.723 (*)



Kontzeptua	2019 Ekitaldia							
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo ez korrontea	Aktibo korrontea	Pasibo	Ekitaldiaren emaitza	Jasotako diru-laguntzak emaitzetara jartzeko zain	Gainontzeko ondare garbia
okupazio tasetiko” (220.147) sarrerak.								
Ekitaldiari dagokien baina itxiera datan aitortu ez diren obligazioak								
- Su itzaltze foru zerbitzuko ekarpenaren kitapena	(391.403)	(52.243)	-	-	391.403	(52.243)	-	(339.160) (*)
Hiri hondakin solidoen ezabapen. Abendua	(105.533)	(4.522)	-	-	105.533	(4.522)	-	(101.011) (*)
- Eraikin-garbigeta. Abendua	(177.535)	(177.535)			177.535	(177.535)	-	-
- Ur-horniketa lehen mailako sarea. Abendua	-	85.044	-	-	-	85.044	-	(85.044) (*)
Balantzeko “Hartzekodunak” epigrafean erregistratutakoak eta 2020ko aurrekontuan aitortzen direnak	(134.024)	(49.519)	-	-	-	-		- (*)
Aurreko ekitaldietatik datozen baina 2015.ekitaldiko ondare-emaitzako <i>Lurzoruen ondare publiko</i> epigrafean egindako saldoen erregularizazioak	-	-	159.263	-	-	-	-	159.263 (*)
Lanbide Sustapenerako Ekintzetarako Lanbideko diru-laguntzak 131 kontuan "Aktibo eta gastu korrontea finantzatzeko diru-laguntzak" 522 kontuan izan behar dira "Epe laburreko zorrak bihur daitezkeen diru-laguntzetan", 143.981 zenbatekoan itzul daitezkeela kontsideratzeagatik.	-	-	-	-	143.981	-	(143.981)	- (*)
2016.ekitaldian aktibo finkoak finantzatzeko jasotako diru-laguntzak "aurreko ekitaldien emaitzak" kontuan erregistratu ziren, nahiz eta ekitaldiko emaitzetara finantzatzeko aktiboaren amortizazioaren arabera transferitu beharko liriratekeen.	-	-	-	-	-	11.110	600.130	(611.240) (*)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(647.135)</b>	<b>130.140</b>	<b>159.263</b>	<b>1.963.519</b>	<b>818.452</b>	<b>(377.724)</b>	<b>456.149</b>	<b>1.225.905</b>

(\*)Udalaren eta bere menpeko erakunde autonomoen 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen ikuskaritza iritziak ere hauengatik salbuespena izan zuen.



Bestalde, erantsita dagoen 2019ko abenduaren 31an amaitutako ekitaldiko memoria bateratuaren 15. oharra “Transferentziak, diru-laguntzak eta bestelako diru-sarrerak eta gastuak”, ez du emandako diru-laguntza esanguratsuak aitortu edo eman diren arabera arautegia zehazten. 2018ko urteko kontu bateratuei buruzko gure ikuskaritza-iritziak, horregatik, arazo bat azaldu zuen.

Ikuskaritza lana, Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontu Bateratuen Ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.

Sektore Publikoaren kontu-ikuskaritza araudiak eskatutakoaren arabera, erakundearengandik independenteak gara, Espainiako Sektore Publikoaren urteko kontu bateratuen ikuskaritzari aplikagarriak zaizkion etika eta independentzi-babesa errekerimenduen arabera.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia salbuespenekin emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

### **Ikuskaritzaren gako nagusiak**

Ikuskaritzaren gako nagusiak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontu bateratuen gure ikuskaritzan adierazgarrienak izan diren gaiak dira. Gai hauek kontuan izan dira urteko kontu bateratuak bere osotasunean hartuz egindako gure auditoretzaren testuinguruan baita hauei buruz osatutako gure iritzian ere, eta ez dugu gai hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

*Iritzia salbuespenekin emateko oinarria* atalean deskribatutakoagatik izan ezik, ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen bestelako gako nagusirik ez daudela zehaztu dugu.

### **Bestelako gaiak**

COVID-19k bateratutako entitateen jardueran eragindako osasun-krisiaren eraginak aztertu ondoren, hauen lehendakari eta administratzaileek uste dute haren ondorioak ez direla esanguratsuak izango, eta, beraz, uste dute gertaera horrek ez duela inolako azalpenik behar erantsitako urteko kontu bateratuetan. Gure iritzia ez da aldatu gai honi dagokionez.

### **Urteko kontu bateratuen inguruan, Lehendakari eta Administratzaileen erantzukizuna**

Bateratutako entitate bakoitzeko urteko kontuak egitea Lehendakari eta Administratzaileen erantzukizuna da, udaleko kontu-hartzaileak erantsitako memoria bateratuko 3.d atalean isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta bateratzea burutzen duelarik, erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren,



- 5 -

emaitzen, diru-fluxuen eta aurrekontu bateratu betetzearen irudi fidela adieraziz, erakundeari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu bateratuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, bateratutako entitate bakoitzeko Lehendakari eta Administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Erakundeak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte kudeaketa jarraituaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da aipatutako arduradunek erakundea likidatzeko edo likidatzeko legezko betebeharra badu edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistatik ez dagoenean.

### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna**

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu bateratuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu bateratuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Ikuskaritza-txosten honen I. eranskinean zehatzago deskribatzen dira urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan ditugun erantzukizunak. Deskribapen hori, 6. eta 7. orrialdeetan biltzen dena, gure ikuskaritza-txostenaren barruan dago.

Bilbon, 2020ko uztailaren 30an

**Betean Auditoría, S.L.P.**

José Ignacio Miguel Salvador





### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzari buruzko txostenaren I. eranskina**

Ikuskaritza-txostenean adierazitakoaz gainera, eranskin honetan sartu ditugu urteko kontu bateratuen ikuskaritzarekiko ditugun ardurak.

### **Urteko kontu bateratuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna**

Espainiako Sektore Publikoarentzat indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu bateratuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurrerengatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko baina altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Lehendakari eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Lehendakari eta administratzaileek kudeaketa jarraituaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Erakundeak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu bateratuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Erakundeak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontu bateratuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu bateratuen transakzio eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko Kontu-hartzailearekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.





- 7 -

Erakundeko Kontu-hartzaileari jakinarazi dizkiogun gaien artean, egungo urteko kontu bateratuen ikuskaritzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, ikuskaritzaren gako nagusienak.





***BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO  
ORGANISMO AUTONOMO ETA  
SOZIETATE PUBLIKOAK***

***2019KO ABENDUAREN 31KO  
URTEKO KONTU BATERATUAK***

# **BASAURIKO UDALA**

**2019ko ekitaldiko kontu bateratuak**

**BASAURIKO UDALA**  
**Balantze bateratuak, 2019 eta 2018ko abenduak 31**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>AKTIBOA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>2019</b>	<b>2018</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>2019</b>	<b>2018</b>
<b>Aktibo ez-korrontea</b>		<b>151.159</b>	<b>147.699</b>	<b>Ondare garbia</b>		<b>160.095</b>	<b>154.277</b>
<b>Ibilgetu ukiezina</b>	8	<b>952</b>	<b>655</b>	<b>Ondarea</b>		<b>36.427</b>	<b>36.427</b>
<b>Ibilgetu materiala:</b>	5	<b>132.081</b>	<b>128.780</b>	<b>Sortutako ondarea:</b>		<b>121.116</b>	<b>115.548</b>
Lurrak		35.183	34.746	Aurreko ekitaldietako emaitzak		115.189	110.733
Eraikuntzak		38.212	39.130	Erreserbak sozietate publikoetan		229	282
Azpiegiturak		52.402	52.083	Ekitaldiko emaitza		5.698	4.533
Bestelako ibilgetu materiala		6.284	2.820	<b>Emaitzei egozteke dauden jasotako diru-laguntzak</b>		<b>2.552</b>	<b>2.302</b>
<b>Ondasun higiezinetakoa inbertsioak</b>	7	<b>7.518</b>	<b>7.626</b>				
<b>Lurzoruaren ondare publikoa</b>	6	<b>10.069</b>	<b>10.182</b>				
<b>Epe luzeko finantza-inbertsioak</b>	10	<b>405</b>	<b>384</b>				
<b>Epe luzeko zordunak</b>	10	<b>133</b>	<b>72</b>	<b>Pasibo ez-korrontea</b>		<b>5.475</b>	<b>7.129</b>
				Epe luzeko zorrak	11	5.474	6.708
				Epe luzeko bestelako kontuak	11	0	421
<b>Aktibo korrontea</b>		<b>24.227</b>	<b>21.423</b>	<b>Pasibo korrontea</b>		<b>9.817</b>	<b>7.716</b>
Epe laburreko zordunak	10	4.432	5.458	Epe laburreko zorrak	11	3.075	2.535
Epe laburreko finantza- inbertsioak	10	95	91	Hartzekodunak eta bestelakoak	11	6.742	5.181
Dirua eta beste aktibo likidoak	10	19.700	15.874				
<b>Aktiboa, guztira</b>		<b>175.387</b>	<b>169.122</b>	<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>		<b>175.387</b>	<b>169.122</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2019 eta 2018ko ekitaldietako ondare-emaitza ekonomiko bateratuaren kontuak**  
(milaka eurotan adierazita)

	Oharrak	2019	2018
<b>Zerga- eta hirigintza-sarrerak:</b>		<b>24.737</b>	<b>23.349</b>
Zergak		14.333	13.464
Tasa eta prezio publikoak		10.385	9.809
Hirigintza-sarrerak		19	76
<b>Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak:</b>	15 a	<b>31.546</b>	<b>32.585</b>
Transferentziak		28.204	28.073
Urteko gastuak finantzatzeko diru-laguntzak		2.066	3.337
Jasotako diru-laguntzen egoztea		1.276	1.175
<b>Gestio arrunteko beste sarrera batzuk</b>		<b>626</b>	<b>719</b>
<b>Gestio arrunteko sarrerak, guztira</b>		<b>56.909</b>	<b>56.653</b>
<b>Langile-gastuak:</b>	15 b	<b>(21.880)</b>	<b>(21.500)</b>
Soldatak, lansariak eta parekoak		(16.885)	(16.919)
Karga sozialak		(4.995)	(4.581)
<b>Emandako transferentziak eta diru-laguntzak</b>		<b>(3.560)</b>	<b>(5.296)</b>
<b>Gestio arrunteko bestelako gastu batzuk</b>	15 c	<b>(22.477)</b>	<b>(22.734)</b>
<b>Ibilgetuaren amortizazioa</b>		<b>(3.204)</b>	<b>(3.771)</b>
<b>Gestio arrunteko gastuak, guztira</b>		<b>(51.121)</b>	<b>(53.301)</b>
<b>Gestio arrunteko emaitza</b>		<b>5.788</b>	<b>3.352</b>
<b>Ibilgetu ez-finantzarioaren emaitza eta bestelako partidak</b>	15 e	<b>(9)</b>	<b>1.898</b>
<b>Eragiketa ez-finantzarioen emaitza</b>		<b>5.779</b>	<b>5.250</b>
<b>Eragiketa finantzarioen emaitza</b>	15 d	<b>(81)</b>	<b>(717)</b>
<b>Ekitaldiko emaitza garbia</b>		<b>5.698</b>	<b>4.533</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**Ondare garbia: bateratutako aldaketa guztien 2019 ekitaldiaren egoera-orria**  
(milaka eurotan adierazita)

<b>ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA ORRIA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>Ondarea</b>	<b>Sortutako ondarea</b>	<b>Balio-aldak. doikuntzak</b>	<b>Jasotako diru-laguntzak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Ekitaldi hasierako ondare garbi doitua</b>		36.427	115.548	0	2.302	154.277
Ondare garbian izandako aldaketak						
Ekitaldian aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak			5.698		250	5.948
Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketak						
Ondare garbiaren bestelako aldaketak			(130)			(130)
<b>Ondare garbia, ekitaldi amaieran</b>		36.427	121.116	0	2.552	160.095

<b>AINTZATETSITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA</b>	<b>Oharrak</b>	<b>2019</b>	<b>2018</b>
Ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomiko bateratua		5.698	4.533
Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta diru-sarrerak		1.526	1.219
Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura eta estalitako partiden hasierako baliora egindako transferentziak		(1.276)	(1.175)
<b>Aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira</b>		5.948	4.577

**BASAURIKO UDALA**  
**2019 eta 2018ko ekitaldietako diru-fluxu bateratuen egoera-orria**  
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	2019	2018
<b>Gestio-jardueren diru-fluxuak:</b>		
- Kobrantzak	68.141	66.176
- Ordainketak	(56.742)	(62.10)
<b>Inbertsio-jardueren diru-fluxuak:</b>		
- Kobrantzak	9	8.099
- Ordainketak	(6.308)	(8.51)
<b>Finantziazio-jardueretako diru-fluxuak:</b>		
- Kobrantzak	0	4.037
- Ordainketak	(1.234)	(93)
<b>Sailkatzeko dauden diru-fluxuak:</b>		
- Kobrantzak	1.826	1.910
- Ordainketak	1.816	(1.91)
<b>Diru kopuruaren eta diruaren baliokide diren aktibo likidoen handitze/txikitze garbia</b>	<b>3.826</b>	<b>6.754</b>
<b>Dirua eta bestelako aktiboak ekitaldi hasieran</b>	<b>15.874</b>	<b>9.120</b>
<b>Dirua eta bestelako aktiboak ekitaldi amaieran</b>	<b>19.700</b>	<b>15.874</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2019ko ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazioaren egoera-orria**  
**Gastuen aurrekontu-likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Konprometitutako kredituak	Aintzatetsitak o obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak	Kreditu gerakinak
I	Langile-gastuak	22.558	1.211	23.769	22.161	21.698	21.672	26	2.071
II	Erosketak eta gastuak	24.321	683	25.005	24.379	22.781	18.995	3.786	2.224
III	Finantza-gastuak	162	1	162	73	73	73	0	89
IV	Transferentzia arruntak	3.185	513	3.698	3.393	3.391	3.369	22	307
VI	Inbertsioak	1.588	8.149	9.737	7.945	6.658	5.949	709	3.079
VII	Kapital-transferentziak	239	0	239	169	169	165	4	70
VIII	Finantza-aktiboak	228	79	306	193	193	94	98	113
IX.	Finantza-pasiboak	1.234	0	1.234	1.234	1.234	1.234	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>53.514</b>	<b>10.636</b>	<b>64.150</b>	<b>59.547</b>	<b>56.197</b>	<b>51.551</b>	<b>4.645</b>	<b>7.953</b>



**BASAURIKO UDALA**  
**2019ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio bateratuaren egoera-orria**  
**Diru-sarrerren aurrekontu-likidazioa**  
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aintzatetsitako eskubideak	Baliogabetzeak	Aintzatetsitako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak	Aurreikuspenen desbideraketa
I	Zuzeneko zergak	12.621	0	12.621	13.241	264	12.977	12.502	475	(355)
II	Zeharkako zergak	500	0	500	1.361	11	1.350	1.299	50	(850)
III	Tasak eta bestelako	10.509	8	10.517	11.045	30	11.015	9.326	1.690	(498)
IV	Transferentzia arruntak	28.850	996	29.847	31.085	1	31.084	30.027	1.057	(1.237)
V	Ondare-sarrerak	145	0	145	153	0	153	152	1	(8)
VI	Inbertsioak	610	(610)	0	20	0	20	20	0	(20)
VII	Kapital-transferentziak	50	999	1.049	1.051	0	1.051	960	90	(1)
VIII	Finantza-aktiboak	228	9.243	9.471	124	0	124	124	0	9.347
IX	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	<b>Guztira</b>	<b>53.514</b>	<b>10.636</b>	<b>64.150</b>	<b>58.079</b>	<b>306</b>	<b>57.773</b>	<b>54.410</b>	<b>3.363</b>	<b>6.377</b>

**BASAURIKO UDALA**  
**2019ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazio-egoera**  
**Aurrekontu bateratuaren emaitza**  
(milaka eurotan adierazita)

	Aintzatetsitako eskubide garbiak	Aintzatetsitako obligazio garbiak	Aurrekontu-emaitza
<b>Ekitaldiko aurrekontu-emaitza</b>	<b>57.773</b>	<b>56.197</b>	<b>1.576</b>
Eragiketa korronteak	56.579	47.943	8.636
Kapital-eragiketak	1.070	6.827	(5.575)
Finantza-aktiboak	124	193	(69)
Finantza-pasiboak	0	1.234	(1.234)
<b>Itxitako ekitaldien aurrekontu-emaitza</b>			<b>(400)</b>
<b>Aurrekontu-emaitza</b>			<b>1.176</b>
Finantziazio-desbideratze positiboak			(418)
Finantziazio-desbideratze negatiboak			4.167
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak			2.113
<b>Aurrekontu-emaitza doitua</b>			<b>7.038</b>

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

#### 1. Antolakuntza eta jarduera

Basauri udalerria Euskal Herrian dago, Bizkaiko lurralde historikoan, Bilbo hiriburutik oso hurbil. 2019ko abenduren 31n, ofizialki, 41.193 biztanle zituen.

Tokiko erakundeek berezko dituzten jarduerak ditu Basauriko Udalak ere (Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikagarri den indarreko araudiak jasotakoak, hain zuzen ere). Udalaren diru-sarrerara nagusia dira, batetik, Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako transferentzia arruntak; eta bestetik, erakundeak berak kudeatutako zerga eta tasetatik eskuratutakoak.

Zerga-ondorioetarako, Udalaren ondare- eta ekonomia-emaitzek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen, eta, jarduera jakin batzuk kenduta, haren eragiketek, oro har, ez dute BEZik ordaintzen.

Bestalde, Udalaren antolakuntza —politikoa eta administratiboa—, tokiko erakundeek izan ohi dutena da. 21 zinegotzik osatzen dute Udalbatza, eta informazio-batzordeak daude Udala eratzen duten arlo bakoitzaren arabera.

Batez bestean, 385 langile egon ziren urtean zehar. Abenduaren 31n, berriz, 407 ziren guztira, honelaxe banatuta:

	Udala	Kultur Basauri	Udal Euskaltegia	Etxe Maitia	Basauri Kirolak	Guztira
Funtzionarioak, plaza jabetzan	154					154
Bitarteko funtzionarioak	62					62
Lan-kontratudun langile finkoak	0	23	17	25	20	85
Aldi baterako langileak	30	15	14	13	12	84
Urteko batez bestekoa	<b>246</b>	38	31	38	32	385
Abenduaren 31n	267	41	29	38	32	407

Generoaren arabera banatuta, langileen batz-bestekoa horrela adierazten da:

	Ayto.	Kultur Etxea	Euskaltegi	Residencia Mayores	I.M.D.	Total
Hombres	152	19	10	6	26	213
Mujeres	94	19	21	32	6	172
Total	246	38	31	38	32	385

Honi erantsitako urteko kontu bateratuak Basauriko Udalari, erakunde autonomoei (Kultur Basauri; Basauri Kirolak; Udal Euskaltegia; eta Etxe Maitia) eta mendeko sozietate publikoei (Basauri-Etxebarri Behargintza, SL; eta Bidebi-Basauri, SL) dagozkienak dira.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

Aipatutako sozietateetan % 87ko eta % 100eko partaidetza du Udalak, hurrenez hurren. Behargintzan, bestalde, Etxebarriko Udalari dagokio partaidetzaren gainerako porzentaia.

#### 2. Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, hitzarmenak eta beste lankidetzak mota batzuk

Ur-horniketaren, estolden eta hondakin-uren kudeaketaz gain (zeina Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egiten baitu), ez dago zeharka kudeatutako zerbitzu publikorik, hitzarmenik edota lankidetzak adierazgarriak.

#### 3. Kontuak aurkezteko oinarriak

##### a) Irudi fidela

Urteko aurrekontu bateratuak Basauriko Udalaren, erakunde autonomoen eta mendeko sozietate publikoen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira. Kontu horiek, gainera, aplikagarri diren kontabilitate-arauen arabekoak dira eta, beraz, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontu-egikaritzaren eta emaitzen irudi fidela islatzen dute.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontuari buruzko informazioak Udalaren eta haren erakunde autonomoen datu bateratuak jasotzen ditu, baina ez mendeko sozietateenak (horiek ez dute aurrekontu-likidaziorik aurkezten, merkataritza-izaera dute eta).

##### b) Kontu-sailak elkartzea

Balantzea eta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua hobeto ulertzeko, zenbait epigrafe elkartu egin dira, eta eskatutako azterketak Memoriaren ohar egokietan aurkezten dira.

##### d) Bateratzea

Urteko kontu bateratuak kontabilitatea bateratzeko irizpide orokorren arabera prestatu dira —batez ere, integrazio globaleko ereduari jarraiki—. Horretarako, bateragarria den perimetroan dauden erakundearen arteko transakzio guztiak ezabatu dira, bai eta ondare-eragina ere (baldin eta hori Udalak erakunde autonomoei ondasunak esleitzetik badator).

Mendeko sozietate publikoei dagokienez, kontu bateratuaren haien ondare-urritasuna ikusita, balioespen-metodoa erabili da.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

#### e) Memoriaren edukia

Memoriak ez ditu barne hartzen tokiko erakundeen kontabilitate-plan orokorrean aurreikusitako ohar batzuk: jaso beharreko informazio hori, kasua zein den, ez da esanguratsua edo aplikagarria.

Hona hemen bazter utzitako oharrak: finantza-errentamenduak eta antzeko eragiketak (9. zk.); kontabilitate-estaldurak (12. zk.); beste erakunde batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak eta beste izakin batzuk (13. zk.); atzerri-dirua (14. zk.); hornidurak eta kontingentziak (16. zk.); salgai dauden aktiboak (18. zk.); ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren aurkezpena, jardueraka (19. zk.); eta gordailuan jasotako balioak (22. zk.).

#### 4. Aintzatespen- eta balioespen-arauak

##### a) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak balioesteko, kontuan hartu da eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak izan direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek zeukaten benetako balioa da eskuratzeko-prezioa.

1993ko urtarrilaren 1a baino lehenago erantsitakoak balioetsita daude jada, tasazio-erakunde independente bateko perituek merkatuko balioaren arabera egindako estimazio baten arabera.

Hasieran aktibo bezala onartzen badira ere, ibilgetu materialaren elementuak kostuaren arabera balioesten dira, ostean pagatutakoa aintzat hartuta, eta metatutako amortizazioa eta balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta.

Amortizazioaren mende dauden aktiboak berrikusi egiten dira inguruabarrak aldatu eta, horren eraginez, gertatu ahal bada kontabilitate-balioa ezin berreskuratzea. Balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egingo dira aktiboaren balio berreskuragarria (arrazoizko balioa) txikiagoa denean amortizazioaren balio garbia baino.

Handitze-, eraberritze- edo hobetze-kostuak aktibora gehitzen dira, ondasunaren balio erantsi gisa, ondasun horren edukiera edo produktibitatea handitzea, edota ondasunaren bizitza baliagarria luzatzea badakarte. Konponketa, ikuskapen edo zaharberritze handiengatiko kostuak aktibatu eta amortizatu egiten dira ondasunen bizitza baliagarrian zehar.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak (lursailak salbu) sistematikoki amortizatzen dira, metodo linealaren bidez, elementu bakoitzaren bizitza baliagarri estimatuaren arabera.

**BASAURIKO UDALA**  
**Memoria bateratua**

	Urteak
Eraikinak	50
Azpiegiturak	40
Instalazio teknikoak eta makineria	8
Altzariak	8
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5
Garraio-elementuak	5

b) Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak

Errentak, gainbalioak edo biak lortzeko higiezinak dira: errentamenduan eman, edo besterendu egiten dira, baina horietako bat ere ez da erakundearen xedea. Hemen daude, era berean, ibilgetutzat jo ezin daitezkeen guztiak ere. Ibilgetu materiala balioesteko aurreko atalean jasotako irizpideak aplikatzen zaizkie inbertsio hauei ere.

c) Lurzoruaren ondare publikoa

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzeko kostua islatzen du aurrekontuak. Doan eskuratu badira, hori gertatu den uneko salmenta-balioaren arabera kontabilizatuko dira.

Hasieran aktibo bezala onartzen badira ere, ibilgetu materialaren elementuak kostuaren arabera balioesten dira, ostean pagatutakoa aintzat hartuta, eta metatutako amortizazioa eta balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta.

Amortizazioaren mende dauden aktiboak berrikusi egiten dira inguruabarrak aldatu eta, horren eraginez, gertatu ahal bada kontabilitate-balioa ezin berreskuratzea. Balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egingo dira aktiboaren balio berreskuragarria (arrazoizko balioa) txikiagoa denean amortizazioaren balio garbia baino.

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatuko dira, hain zuzen, ibilgetu materialaren barne sartutako ondasunen bizitza baliagarriaren arabera.

d) Ibilgetu ukiezina

Diruzkoa ez den balioespen ekonomikoaren xede izan daitezkeen, eta itxura fisikorik ez duten ondasun ukiezinak eta eskubideak dira. Denboran zehar irauten dute, ondasunak edota zerbitzuak ekoizteko erabiltzen dira, edota erakundearen baliabide-iturri dira. Identifikagarriak ere badira.

Ibilgetu materialaren barruko ondasunak balioesteko erabilitako irizpideen arabera balioetsiko dira ondasun hauek ere.

## BASAURIKO UDALA

### Memoria bateratua

Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatu da, honako bizitza baliagarri honen arabera:

	<u>Urteak</u>
Informazio-prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

e) Finantza-aktibo eta -pasiboak

Finantza-tresnetatik eratortzen dira finantza-aktibo eta -pasiboak: alderdietako bati eskubide bat ezarri (finantza-aktiboa), eta besteari obligazio bat (finantza-pasiboa) edo ondare garbiaren osagai bat (ondare-tresna) esleitzen diote. Horien sailkapena, balioespena eta kontabilizazioa, berauek mantentzen dituen edota jaulkiak izan ziren xedea aintzat hartuta egiten da, batik bat.

Finantza-aktiboak:

